

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

106 izangaik gainditu dute suhiltzaile- postuaren 17 plaza hornitzeko oposaketaren lehen proba

*Aurkeztutako pertsonen ia herenak gainditu du oraingoz ezagutza
teorikoen gaineko proba*

Astelehena, 2018.eko irailak 17

Guztira 106 hautagaik, aurkeztutako 344 pertsonen ia herenak, gainditu dute Nafarroako Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura lan egiteko suhiltzaileen lanpostuaren 17 plaza oposaketa bidez hornitzeko deialdiaren lehen proba. Azterketa larunbat honetan egin zuten Nafarroako Unibertsitate Publikoko gelatan.

Horrela agertu da Nafarroako Gobernuaren atariko Izapideen eta Zerbitzuen [Katalogoaren fitxan](#) argitaratutako gai eta ez gai diren pertsonen behin-behineko zerrendatan.

Aurreko deialdiarekin alderatuta, gainditu duten pertsonen kopurua askoz ere handiagoa izan da, oposiziogileen prestaketa onaz gain, bi faktore medio. Epaimahaiak deialdian bertan adierazitako erreferentzia bibliografikoen arabera proba jarri du, 150 galdera gomendatutako ikasketa-eskuliburuetatik atera baititu, gaikako lau bloketan zatituta.

Era berean, gehieneko puntuazioaren erdia lortzea eskatzen zen, proba osoan, eta, iazko deialdian, gaikako lau bloketako bakoitzean kalifikaziorik onena ateratako hautagaiari emandako puntuazioaren erdia atera behar zen gutxienez.

Deialdian adierazi moduan, apirilaren 26ko [965/2018 Ebazpenaren](#) bidez onartua, behin-behineko emaitzen aurrean alegazioak aurkezteko epea ireki da irailaren 24ra bitarte, eta, behin horiek aztertuta, gainditutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Puntuazio onena lortzen duten 100 pertsonak proba fisikoetara igaroko dira, eta, ondoren, hirugarren proban, ariketa psikoteknikoak eta elkarrizketa pertsonalak eta/edo taldekoak egin beharko dituzte.

Behin oposaketaren lehen fasea gaindituta, izangaiek gaitasun psiko-fisikoaren azterketa gainditu eta plaza hutsak hautatu beharko dituzte, azkenik oinarritzko prestakuntza-ikastaroa egiteko Nafarroako Segurtasun eta Larrialdien Eskolan, postua hartu baino lehen.